

Hezkuntzaren historia arloko ekoizpen zientifikoa

Jon Diaz Egurbide
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea (EHU)

Artikulu honetan Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasleen *hezkuntzaren historia* arloko produkzio akademikoaren azterketa egiten da. Azterketa hau liburuen eta aldizkarien erabilera zehazteaz gain argitalpenen bilakaera orokorra argitzeko baliagarria da. Alderdi metodologikoan azterketaren diseinua Inguma eta Dialnet datu-baseen berrikusketan oinarritu da. Azken lau hamarkadetan argitaratutako lan inprimatuak aztertu dira, euskaraz hezkuntzaren historiaren arloan egindako ekoizpen zientifikoa identifikatu eta ikusgarri egiteko. Dena dela, euskaraz egin diren lanen bilduma oso bat biltzeko, informazio-iturri hauez gain, euskarazko produkzioa jasotzen duten aldizkari eta argitaletxe espezializatuak aztertu dira. Besteak beste *Uztaro* eta *Tantak* aldizkarien argitalpenen bildumak eta Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) eta Utriusque Vasconiae argitaletxeen liburuen katalogoak. Analisirako osatu den bilduma honetan, guztira, euskaraz egindako 181 erreferentzia bibliografiko jaso dira; 47 liburu, 84 artikulu eta 50 liburu-atal.

GAKO-HITZAK: Hezkuntzaren historia · Historiografia · Azterketa bibliografikoa · Argitalpen-bilduma.

Scientific production in the field of the History of Education

This article analyses academic production in the field of the history of education. This study not only determines the use of books and journals, but also clarifies the general evolution of publications in the Basque language. The study's methodological design was based on the review of the Dialnet and Inguma databases. All bibliographic references and editorial documents related to scientific production have been published in the last four decades in the discipline of the history of education, highlighting the presence of academic sources of communication from the Basque scientific community. However, to gather a complete collection of works, in addition to these databases, specialised journals and editorials have been analysed. Collections of the magazines *Uztaro* and *Tantak*, and book catalogues of the editorials Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) and Utriusque Vasconiae. A total of 181 bibliographic references, 47 books, 84 articles and 50 book chapters have been selected, reviewed, and analysed.

KEY WORDS: History of Education · Historiography · Scoping review · Collections.

1. Sarrera

Ikerketa bat abiatzean, azterketa historiografikoa egitea oinarrizko urratsa da; izan ere, historiografia-lanak abiapuntutzat hartzen dira gaia teorikoki kokatu aurretik. Gainera, lan akademikoen berrikuspena ezinbesteko pausoa da, beste ikertzaileek idatzi dutenaren azterketa egin eta ikerketa teorikoki eta kontzeptualki kokatzeko. Hala ere, euskarazko produkzio akademikoaren bilakaerari dagokionez, hainbat zalantza sortu dira. Nahiz eta azken hamarkadetan Euskal Herriari buruzko historia arloko lan argitaratuak ugartu diren, adituen arabera, oraindik zalantzazkoa da komunitate zientifiko euskaldunaren aurrerakuntza historiografikoa (Aizpuru, 2005; Agirreazkuenaga, d.g.).

Hezkuntzaren historia diziplinan egin den lan-bilduma askoz urriagoa da. Are gehiago, euskaraz burututako argitalpen akademikoen kopurua bakarrik kontuan hartzen bada. Euskal historiaren historiografia aztertu duten egileak ez dira oso ugariak (Askoren artean, 1989; Larrion eta Letona, 1999; López Atxurra, 1989; Zabaleta, Fernández, Uribe-Etxebarria, Dávila, 2002; Kintana, 2003), eta haien lanetan jasotako bibliografia-erreferentziak aztertuta, bistakoa da euskarazko argitalpenen eskasia, gehienak *erdaretan oinarritutako lanak* dira. Egoera hau Lopez de Luzuriagak ere aztertu zuen bere lanean, non azpimarratzen zuen Euskal Herriko historian irakatsi dena azken hamarkadak arte *frantses eta espainiar irakurleentzat ekoitzi* izan dela (Lopez de Luzuriaga, 2022, 16).

Egoera honen azalpen posibleak hainbat dira. Batetik, euskarazko produkzio akademikoaren egiturazko arazoak, argitalpen akademikoak zabaltzeko euskal erakunde eta argitaletxe bakan batzuk baino ez baitira existitzen. Bestetik, jarduera zientifikoa sailkatu eta saritzen duen nazioarteko paradigmaten barruan, euskal argitaletxe eta aldizkariak zailtasunak dituzte komunitate zientifikoan leku bat aurkitzeko. Halaber, unibertsitate-mailako egiturak eta ibilbide akademikoaren saritze-jardunbideak ere eragina dute, eta horrek euskarazko produkzio akademikoa mugatzen du (Iztueta eta Díaz Egurbide, 2021).

Artikulu honen asmo nagusia, beraz, auzi honetatik sortzen da: euskaraz nahikorik egin den edo ez galderari erantzuteko, *hezkuntzaren historia* arloko produkzio akademikoaren azterketa egitea. Helburua Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasleek hezkuntzaren historiari buruz argitaratutako lanen analisi kuantitatiboa egitea da. Horrela, nork, non eta noiz zer argitaratu duen, baita produkzio zientifiko hori —liburuak, liburu-atalak eta artikulak— zein argitaletxe edo aldizkaritan argitaratu den ere aztertuko da. Aldi berean, lan honek euskarazko produkzio akademikoaren garapena denboran zehar nola gorpuztu den aztertzea du xede.

Baina, has gaitezen ikerketa honek egin dituen urratsak deskribatzen.

2. Metodologia

Bilaketa-estrategiaren diseinua egin aurretik historiografiaren berrikuspen sistematiko bat egin da (artikulu zientifikoak, aldizkari espezializatuak, argialetxeen liburu aitortuak) esplorazio- eta analisi-teknika gisa. Literaturaren berrikuspenak, gainera, aukera ematen du ikusteko autoreek zer landu duten eta hizkuntzaren araberako sailkapena egiteko oso baliagarria izan da. Berrikuspenari sakontasun apur bat gehiago ematen dio lehen urrats honek, jasotako lanen bibliografia-erreferentziak ere aztertu baitira. Historiografia-lanetan euskarazko beste argitalpenen ebidentzia jaso delako (Askoren artean, 1989; Kintana, 2003; Larrion eta Letona, 1999; López Atxurra, 1989; Zabaleta, Fernández, Uribe-Etxebarria, Dávila, 2002).

Jarraian azterketa egiteko aplikatu den metodologiaren diseinua eta analisi-prozesua deskribatuko da. Hezkuntzaren historia arloan aztergaiari buruzko ekarpen garrantzitsuenak eta analisirako dokumentuen bilduma berrikusteko prozesuan kontuan hartu diren urrats nagusiak hauek izan dira: batetik, bilaketa-estrategia diseinatzea; bestetik, literatura garrantzitsua identifikatzea eta hautatzea, eta azkenik, bilaketaren emaitzak gordetzea eta erregistratzea.

Informazio-iturriak eta datu-baseak

Ikergaia osatzeko lehen azterketa-iturria Inguma datu-basea izan da. Bilaketarako erabili diren hitz-gakoak *hezkuntza* eta *historia* izan dira. Azterketan sakontzeko asmoz egileen izenak ere erabili dira. Hala eta guztiz ere, hutsune ugari aurkitu dira Inguma datu-basean, egileen produkzioa ez dago eguneratua, datu-base honek ez baititu idazle eta ikertzaileen argitalpen guztiak jasotzen. Datuek erakusten duten moduan, Inguma datu-basean aplikatu den gako-hitzen bilaketak oso emaitza urriak ematen ditu. *Hezkuntza* eta *historia* gako-hitzak aplikatuz 67 lan jasotzen dira bakarrik. Sail honetako irakasleek eginak 30 baino ez, idazlanak 20, liburuak 7 eta liburu-atalak 3. Idazle bakoitzaren izena aplikatu denean, berriz, idazlan kopurua handitu egin da, guztira 80ra ekarri du bilaketa-emaitza. 40 idazlan, 28 liburu eta 12 liburu-atal.

Jarraian erabili den beste datu-basea Dialnet ataria izan da. Aurretik aplikatu den modu berean hemen ere idazleen izen eta abizenekin hasi da bilaketa. Guztira 982 lan jaso dira, gehienak gaztelaniaz eginak. Lehen bilduma honetatik euskaraz diren lanak bereizi dira eta guztira 276 lan bildu dira. Atari honek ere ez du egileek egindako produkzio akademiko guztia jasotzen. Iñaki Lopez de Luzuriagak bere lanean agerian ipini zuen bilaketa-tresna digitalak euskararekiko planteatzen dituen erronkak zeintzuk diren (2023).

Beraz, bilaketaren arazoari aurre egiteko soilik euskarazko produkzioa jasotzen duten aldizkari eta argialetxe espezializatuak aztertu dira. Besteak beste, *Uztaro* eta *Tantak* aldizkarien argitalpenen bildumak eta Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) eta Utriusque Vasconiae argialetxeen liburu katalogoak. Neurri hauek hartuta guztira 258 dokumentu gehiago aurkitu dira. Errepikatuak diren lanen garbiketa egin ostean, guztira euskaraz egindako 514 dokumentu zerrendatu dira. Oinarritzko zerrenda horretatik ikergaia definitzen duten irizpideak ezarri dira.

Irizpideak

Berrikusketa kuantitatiboa egiteko jarraitu diren irizpideak bi izan dira nagusiki: bat, euskaraz eginga izatea; eta bi, hezkuntzaren historia arloan sorkuntza-lana izatea. Momentuz, esan, lanketa honek euskal hezkuntzaren produkzio akademikoa neurtzeko asmoa baino ez duela bete nahi. Bereziki hezkuntzaren historia diziplinan argia ikusi duten argitalpen akademikoak aztertu dira.

Guztira analisia egiteko 181 lan hautatu dira, batzuk ez dira zerrenda honetara bildu. *Hik Hasi* aldizkarian argitaratutako 20 idazlan aztertu dira, baina bakarrik 9 jaso dira zerrenda honetan. *Hik Hasi* aldizkariaren asmo nagusia hezkuntza-gaien inguruko zabalkundean sakontzea izan da, nahiz eta ikerketa-izaera duten lanak jaso, gehienetan ez dute bibliografiarik izaten, dibulgazio-lanak dira gehienak. Zerrenda honetan hobetsi diren argitalpenek bibliografia-oinarria dute eta 4 eta 15 orrialde bitarteko idazlanak dira. Erabaki bera hartu da beste hainbat aldizkaritan egindako argitalpenekin, *Larrun* eta *Egan* adibidez.

Emaitzak

Egindako zenbaketaren emaitzak irudikatzeko, lau taula sortu dira. Lehenengoan, Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasle eta ikertzaileen lanen bilduma osoa zenbatzeko ahalegina burutu da. Lehen taulan, sail horretako idazle eta irakasleen argitalpenak liburu, artikulua eta liburu-ataletan bereizi dira. Gainera, parentesi artean, ahal izan denean datu eguneratuak eman dira, Dialnet eta Inguma atarietan ematen ez dituzten datuak gehitu baitira. Bilaketan euskarazko produkzioari arreta berezia jarri zaio, eta bigarren mailako iturriei esker euskarazko dokumentu-produkzioaren berrikusketa osoa egin dela uste da. Euskaraz egindako lanen kopuruak ere bere zutabe propioa du.

Bigarren taula euskarazko argitalpenak non egiten diren aztertzeko baliagarria da. Dokumentuak erakunde, argitaletxe edo aldizkariaren arabera sailkatu dira. Asmo nagusia da *argitaletxea* eta *aldizkaria* aldagaien arabera produkzio akademikoa non kausitzen edo jasotzen den aztertzea.

Jarraian, zutabe-diagrama baten bitartez urteen arabera dokumentuen produkzioa non pilatu den irudikatu da. Hemen ere liburuak, liburu-atalak eta artikulua bereizi dira.

Hirugarren eta azken taulak hezkuntzaren historia arloko euskarazko argitalpenen zenbaketa irudikatzen du. Bertan egile bakoitzaren dokumentu kopurua zehaztu da. Aurretik egin den modu berean, liburuak, artikulua edo liburu-atalak zenbatu dira. Taula honetan sorkuntza-lanak bakarka edo elkarlanean burutu diren azpimarratu da.

3. Emaitzen analisia

Metodologia-atalean azaldu den moduan, lehen berrikusketa honetan euskarazko hainbat argitalpenen falta sumatu da eta beste atari eta katalogoetara jo dugu analisirako bibliografia-bilduma oso bat egituratzeko. Lehen taula honetan Dialnet atariaren datuak eta bilaketa osoaren datuak irudikatu dira. Bigarren lerroan Inguma

datu-basean eta aurretik aipatu diren argitaletxe eta aldizkarien katalogoen emaitzak biltzen dituen datu eguneratuak ematen dira.

1. taula. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko argitalpen akademikoak.

	Dokumentuak guztira	Euskaraz	Liburuak	Artikuluak	Liburu-atalak
DIALNET	982	276	113 (Tesiak 45)	458	411
Guztira	1240	514	180	546	514

Norberak egindakoa, Dialnet eta Inguma datu-basean oinarrituta 2023ko uztaillean¹.

Dialnet datu-basearen atariaren arabera 982 argitalpen izan dira guztira. Liburuak 113, artikuluak 458 eta liburu-atalak 411. Sail honetan garatu diren tesiek ere interes berezia jaso dute. Euskal Herriko Unibertsitatean garatu baitira hezkuntza eta historia arloak lotzen dituzten ikerlerro esanguratsuenak, guztira 45 tesi zerrendatu dira. Euskarazko idazlanak 276 izan dira guztira.

Bigarren mailako iturrien berrikuspenak lortu du Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasleen euskarazko dokumentu-bilduma oso bat egitea. Aldizkarien argitalpen-bilduma eta argitaletxeen katalogoetan lan gehiago aurkitu dira, guztira, 1.240 erreferentzia osatu arte; guztira liburuak 180, artikuluak 546 eta liburu-atalak 514 izan dira. Euskaraz Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasleek egindako dokumentuak 514 dira. Dokumentu-zerrenda honetatik aztertu da analisia osatu duten oinarritzko dokumentuen bilduma. Beraz, oinarritzko zerrenda honi alde z aurretik metodologian adierazitako bi irizpideak aplikatu zaizkio. Batetik, euskaraz izatea, eta bestetik, dokumentuak hezkuntzaren historia arlokoak izatea.

Guztira hezkuntzaren historia arloko 181 lan aukeratu dira. Analisirako erabili den bilduma, euskarazko hezkuntzaren historia arloko goi-mailako produkzio akademikoaren ebidentzia osatzen duena, eranskinetan jaso da. Azterketa mota hau liburuen eta aldizkarien erabilera zehazteaz gain argitalpenen bilakaera orokorra argitzeko baliagarria da (Pritchard, 1969).

2. taula. Erakunde, argitaletxe eta aldizkarien arabera argitalpen kopuruak.

Erakundea	Argitaletxea/ Aldizkariaren izena	Liburuak	Artikuluak	Liburu-atalak
Utriusque Vasconiae	Utriusque Vasconiae	20		3
UEU	UEU	9		1
EHU	EHU	5		19
Delta Publicaciones Universitarias	Delta Publicaciones	2		1
Etor-Ostoa	ETOR	2		

1. Dialnet web atariak kontuan hartu ez dituen lanak jaso dira. Datu eguneratuak emateko metodologia-atarian azaldu den moduan argitaletxe eta aldizkarien katalogoen azterketa burutu behar izan da. Tesien kopurua ere aztertu da, guztira 45 zenbatu ditugu.

EREIN Argitaletxea	EREIN Argitaletxea	2		5
Itxaropena Argitaletxea	<i>Itxaropena</i>	1		
ELKAR	Txertoa	1		
Kutxa Fundazioa	<i>Kutxa Argitalpen Zerbitzua</i>	2		
Manu Robles Arangiz Fundazioa	<i>Manu Robles Arangiz</i>	1		3
Deustuko Unibertsitatea	<i>Saturraran</i>			2
UPNA-UPN	UPNA-UPN			2
Euskal Memoria Fundazioa	Euskal Memoria Fundazioa			4
Auñamendi	<i>Herria 2000 Eliza</i>		2	1
Ikastolen Elkarte	<i>Orain</i>	1		1
EHU	<i>Tantak</i>		21	
EHU	<i>Gogoa</i>		1	
UEU	<i>Uztaro</i>		14	
UEU	<i>Kondaira</i>		1	
Jakin Fundazioa	<i>Jakin</i>	1	12	1
Eusko Ikaskuntza	<i>Ikastaria</i>		8	
Eusko Ikaskuntza	<i>RIEV</i>		1	
Soziolinguistika Klusterra	<i>Bat Soziolinguistika Aldizkaria</i>		3	
Sociedad Española de Historia de la Educación	<i>Historia y Memoria de la Educación</i>		1	
AEK	<i>ELE</i>		3	
Euskaltzaindia	<i>Euskera</i>		2	
Hik Hasi - Kooperatiba	<i>Hik Hasi</i>		9	
Mendebalde Kultura Elkarte	<i>Euskalingua</i>		4	
Sabino Arana Fundazioa	<i>Hermes</i>		1	
Besteak	<i>Erakundeen aldizkako argitalpenak</i>		1	7
GUZTIRA		47	84	50


Norberak egindakoa, 2023.

Ikerketa honek jasotzen duen emaitzak frogatzen du azken 4 hamarkadetan Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean euskaraz egindako lana eskerga izan dela. Hezkuntzaren historia arloan euskaraz 181 lan jaso dira guztira; 47 liburu, 84 artikulua eta 50 liburu-atal. *Tantak*-en 21 idazlan argitaratu dira, *Uztaro* aldizkarian 13, *Jakin* aldizkarian 12, *Ikastaria* aldizkarian 8, *Hik Hasi*-n 9, *Euskalingua*-n 4, *ELE*, *Euskera* eta *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*-n 3na. Azkenik, *Kondaira*, *Hermes*, *Gogoa* eta abarren idazlan bana, guztira 84 artikulua osatu arte.

Liburu-atalak ere oso ugariak dira, 50 guztira. Gehienak Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen-zerbitzu nagusiak argitaratutakoak. Hemen jasotzen dira hezkuntza-jardunaldi eta -topaketetan izaten diren kolaborazio-lanak. Udako ikastaroetan emandakoak eta hezkuntza eta historiaren arloko berbaldietan ematen diren hitzaldi eta konferentziak.

Azkenik, guztira 47 liburu zenbatu dira, bakarka nahiz elkarlanean egindakoak. Hiru argitaletxe nagusien artean argitaratu dira gehienak, 9 liburu UEUn, 5 Euskal Herriko Unibertsitatean eta Utriusque Vasconiae argitaletxean 20 liburu.

Irudi honek dokumentu akademikoek argitalpen-joerak erakusten ditu. Dokumentu kopuruak hamarkada desberdinen artean sailkatu dira. Lan gehien jaso duen zutabean, 1990eko hamarkadan 49 eta 2000ko hamarkadan 67 lan izan dira.



1. irudia. Argitalpen kopuruak urteen arabera.

Jarraian datozen urteetan goi-mailako argitalpenen hazkunde negatiboa erakusten du. 2010eko hamarkadan 29 lan baino ez baitira jaso. Datu hauek Karnele Artetxeren bibliometria-lanean aipatzen den ondorio nagusia errepikatzen dute. Goranzko joera baten osteko hazkunde negatiboa baieztatzen baita hemen ere (2010).

Analisi zehatzago bat eginez, 10 liburu jaso dira 1990eko hamarkadan, 17 liburu 2000ko hamarkadan eta 11 hurrengo hamarkadan. Artikulu akademikoek garapena, berriz, bestelakoa da, argitalpen kopuru handiena 1990eko hamarkadan jasotzen baita 34 dokumenturekin, 2000ko hamarkadan 29 eta, azkenik, 10 gehiago 2010eko hamarkadan.

4. Hezkuntzaren historia arloko argitalpen akademikoak egileen arabera

Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasleen argitalpenen emaitzak hirugarren eta azken taula honetan irudikatzen dira. Guztira 181 argitalpen akademiko zerrendatu dira, denak euskaraz eginak. Zerrenda honetan ez dira sail honeko irakasle guztien datuak jasotzen. Batez ere, hezkuntzaren historian ez dutelako argitalpenik egin, pedagogian edo beste azterketa-ildo batzuetan bideratu dutelako beren ikerketa-ibilbidea. Egileen arabera dokumentu kopuruaren analisiari bakarkako eta elkarlanean egindako lanen ezaugarria ipini zaio. Guztira bakarka egindako 119

jaso dira eta 58 elkarlanean. Jarraian, egile bakoitzaren dokumentuen analisiaren azken taula eta azalpena.

3. taula. Egileen arabera dokumentu kopurua.

	Liburuak	Artikuluak	Liburu-atalak
Paulí Dávila	1 elkarlanean	6, lau elkarlanean	4 elkarlanean
Hilario Murua	2 elkarlanean	2, bat elkarlanean	2 elkarlanean
Igor Camino	1 elkarlanean	4, bi elkarlanean	-
Ana Eizagirre	1	4, bi elkarlanean	1 elkarlanean
Joxe Garmendia	2, bat elkarlanean	4, bat elkarlanean	1
Iñaki Zabaleta	2	12, sei elkarlanean	4, bi elkarlanean
Idoia Fernández	2	9, sei elkarlanean	3, bi elkarlanean
Arantzazu Uribe-Etxebarria	-	4, bi elkarlanean	3 elkarlanean
Felix Basurko	1 elkarlanean	2	2, bat elkarlanean
Gurutze Ezkurdia	4, bi elkarlanean	13, bederatzi elkarlanean	7 elkarlanean
Paulo Iztueta	20, zazpi elkarlanean	22	29, bi elkarlanean
Karmele Artetxe	5, bi elkarlanean	6, bi elkarlanean	-
Jon Diaz Egurbide	6, bost elkarlanean	-	5, hiru elkarlanean
Paki Arregi	1	1, elkarlanean	-
Fito Rodríguez Bornaetxea	5, bi elkarlanean	3	1
Lore Erriondo	2 elkarlanean	2 elkarlanean	-

Norberak egindakoa, 2023.

Paulí Dávila 1987an lortu zuen doktoretza *Educación en el País Vasco: el magisterio y la enseñanza elemental (1857-1930)* lanarekin. 1996an Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailaren katedra eskuratu zuen. Gaur egun irakasle erretiratu berria da. Argitalpen akademikoaren arloan Dávila-ren produkzio akademikoa ugaria eta sakona den arren, euskaraz egindako argitalpenak oso urriak dira. Hezkuntzaren historiaren atalean euskaraz buruturiko lanak hamaika dira, bi artikulu berak bakarrik eginak eta zortzi elkarlanean, eta liburu bat *Euskal Herriko hezkuntzaren historiari buruzko gai eta bibliografi gida* (Dávila, Rodríguez eta Arpal, 1986). Euskaraz egin dituen lan gehienak elkarlanean egindakoak dira. Sailean ikerketa-ildo berriak finkatu ditu, baina bere ikerketa-ibilbidea ez du euskal lerrotik bideratu. Beraren artikulu batzuk euskaratuak izan dira, hauek ere saileko kideekin elkarlanean.

Egin duen ibilbidearen inguruan nabarmentzekoa da beste elkarte batzuekin zabaldu dituen ikerketarako ildo eta harremanak. Kronologikoki, 1996an Sociedad Española de Pedagogía-ren XI. Kongresua zuzendu zuen, zeina «Pedagogi Berrikuntzak eta Hezkuntza Politikak» aztertzerantz bideratu zen. 2005ean, berriro Donostian, Sociedad Española de Historia de la Educación elkartearen «La Infancia en la historia: espacios y Representaciones» kongresua zuzendu zuen. Saio horretan euskaraz egindako lan bakarra jaso zen, Joxe Garmendiaren «Gipuzkoako Aldundia eta landa-auzoetako haurren eskolatzeari XX. mendean» idazlana, hain zuzen (Garmendia, 2005). 2006an, Luis Mari Nayarekin lankidetzan Congreso Nacional de Educación Comparada «Derecho a la educación en un mundo globalizado» izeneko zuzendu zuen; eta, 2007an Eusko Ikaskuntzaren Hezkuntzaren Historia Euskal Herrian Jardunaldiak zuzendu zituen.

2000. urtetik aurrera Garaian - Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuen Ikerketa Taldeko ikertzaile nagusia izan da. Batik bat, Euskal Herriko Hezkuntzaren Historiari eta Haurren Eskubideei buruzko ikerketak burutu ditu. Ikertaldearen atari digitalaren arabera, «Euskal Herriko hezkuntzaren historiari buruzko jakintza-eremu bat eraikitzearen» egiten du lan (Dávila, Garmendia, Naya, eta Zabaleta, 2005). Ikertalde horren emaitza nagusia Unibertsitatearen Hezkuntza Museoaren eta Dokumentazio Zentroaren egituraketa izan da.

Dialnet atariaren arabera, guztira 18 tesi zuzendu ditu. Bertan dira, besteak beste, saileko zortziren tesiak. Kronologikoki zerrendatuak, hauek dira: 1993. urtean Aranzazu Uribe-Etxebarriaren *Protección a la infancia y maternidad: la casa de maternidad y expósitos de Navarra*, eta Idoia Fernández-en *Ikastolen mugimenduaren historia (1960-1975)*; 2002. urtean Irene López-Goñiren *Nafarroa garaiko ikastolen historia 1963-1982*; 2003. urtean Joxe Garmendiaren *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la diputación y los ayuntamientos (1900-1950)*; 2005. urtean Ana Eizagirreren *Alfabetatze espazioak eta herri heziketa Gipuzkoan (1876-1918)*; 2006. urtean Hilario Muruaren *El magisterio y la enseñanza primaria en Guipúzcoa, 1936-1975*; 2010. urtean Igor Caminoren *Los estudios de segunda enseñanza en Guipúzcoa. El Instituto Provincial (1845-1901)*; eta 2019an, azkenik, Joana Miguelenaren *Los derechos de las niñas, niños y adolescentes atendidos en recursos residenciales de acogida de programas básicos de Gipuzkoa*.

Beste egile batzuen lanekin jarraituz, Igor Caminok 41 argitalpen ditu, euskaraz 12 idazlan, baina lan gehienak didaktikari buruzko ikerketa-lanak izan dira. Hezkuntzaren historiari buruzko argitalpenak, berriro, lau ditu, hiru elkarlanean. Ezagunena Hilario Murua sailkidearekin argitaratutako *Hezkuntzaren Teoria eta Historia* liburua da (Camino eta Murua, 2012). Hilario Muruak 58 argitalpen ditu, euskaraz 6. Igor Caminorekin landutakoaz aparte hezkuntzaren historiari buruzko bost lan gehiago eginak ditu; bat *Tantak* aldizkarian bakarrik egin eta gainontzekoak elkarlanean beste aldizkari batzuetan. Ana Eizagirreren argitalpenak 32 dira, euskaraz eginak 12 idazlan ditu. Hezkuntzaren historiari buruzkoak 6, liburu bat Utriusque Vasconiae argitaletxean. Bi artikulua berak bakarrik argitaratuak eta beste bi elkarlanean; liburu bateko atal bat ere elkarlanean egin. Joxe Garmendiaren argitalpenak 37 dira guztira, euskaraz zortzi. Hezkuntzaren historiako lanak zazpi ditu, liburu bat

Utriusque Vasconiaen, lau artikulu aldizkarietan, elkarlanean egindako artikulu bat eta liburu bateko atal bat 2006ko «Congreso Nacional de Educación Comparada»n aurkeztu zuena.

Iñaki Zabaletaren argitalpenak 42 dira, euskaraz 16. Hezkuntzaren historiako liburuak 2 dira; liburuetako atalak 4, bi elkarlanean. Egindako artikuluak guztira 12 dira, elkarlanean egindakoak sei. Idoia Fernándezen lanak guztira 56 dira, euskaraz egindakoak 24. Hezkuntzaren historian egindakoak 12 ditu: bi liburu, 7 artikulu, eta liburuetako hiru atal. Elkarlanean egindakoak lau lan ditu. Arantza Uribe-Echevarriak guztira 34 lan ditu, euskaraz 15. Hezkuntzaren historian egindako artikuluak 4 ditu, bi elkarlanean, liburu-atalak ere beste hiru ditu. Felix Basurkok guztira 23 lan ditu, euskaraz egindakoak 12. Hezkuntzaren historian egindako lanak 5 zenbatu dira. Paulo Iztuetaen omenez egindako liburuan idazlan bat; aldizkarietan egindakoak hiru ditu, *Tantak* eta *Bat Soziolinguistika Aldizkarian* bana, eta saileko irakasle ugarirekin batera elkarlanean egindako hirugarren bat, Nafarroako *Gerónimo de Ustaritz* aldizkarian argitaratu zena (1995).

Gurutze Ezkurdiak guztira 58 lan ditu, euskaraz 39. Bost liburu, hiru elkarlanean egindakoak; 14 artikulu, gehienak elkarlanean, *Hik Hasi*, *Jakin*, *Euskalingua*, *Tantak*, *Hermes* eta *Ikastarian* argitaratuak. Liburu-atalen arloan elkarlanean egindako 20 lan ditu. Beste hizkuntza batzuetan egindako lan ugari zenbatu dizkiogu, kongresuetan ingelesez egindakoak nagusitzen dira. Baina hezkuntzaren historiari buruzko lanak, berriz, 33 izan dira guztira; ia guztiak elkarlanean Begoña Bilbao eta Karmele Perez Urrazarekin batera egindakoak, ARAKA ikerketa-taldeko kideekin batera egindakoak.

Karmele Artetxek hiru liburu ditu bere izenean, eta laugarren bat Jurgi Kintanarekin elkarlanean egindakoa. Azken lan hori zuzenean gure ikergaiaren ezagutzara zuzendutako ikerketa-lanen bilduma da, liburuaren sarreran bakarrik parte hartzen duen arren (Kintana eta Artetxe, 2002) euskal historiako idazle esanguratsuenak biltzen dira lan honetan. Aroz aro azterketa laburrak biltzen dira bertan. Artetxek liburu bat argitaratu du Utriusque Vasconiae argitaletxean. Azkenik, 6 artikulu zenbatu dira, *Jakin* aldizkarian 3, *Uztaron* 2 eta *Kondairan* bat.

Hezkuntza eta historiaren arloan, hizkuntzari bere garrantzia eskainiz, euskal pentsamendua landu duen egilea da Paulo Iztueta. Iztueta Filosofian lizentziatua da Erromako San Tomas Akinokoa Pontifize Unibertsitatean 1966. urtean eta Soziologian doktorea Paris VIII.eko Unibertsitatean 1976an *Sociologie du phénomène contestataire au Pays Basque Sud: l'exemple du clergé basque 1945-1975* tesiarekin. UZEI Unibertsitate Zerbitzuen Euskal Ikastetxean egin zuen lan 1976tik 1988ra bitartean. Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle modura egindako ibilbidea 1988an hasi eta 2006ra arte luzatu zen. Hezkuntzaren Soziologian eta Politikan izan da irakasle. Hezkuntza Zientzien Fakultatean irakaskuntza- eta ikerketa-lanak egin ditu, batez ere Euskal Herriari dagozkion soziologia politikoan, kulturean eta hezkuntzakoan. Idazle, irakasle eta ikertzailea izateaz gain, ibilbide luzea egin du euskal kultur mugimenduen sustatzaile gisa: gazetetan Areatzan *Arnas* aldizkaria zuzendu zuen bost urtez (1959-1964). Elkar argitaletxearen sorreran parte hartu zuen 1974an; 1998an argitalpen-mailan, Jokin Apalategi irakaslearekin

batera, *Utriusque Vasconiae* (2000) argitaletxearen sorreran eta zuzendaritzan jarri zuen bere ahalegin nagusia.

Paulo Iztuetari guztira 211 idazlan zenbatu dizkiogu. Horietatik hezkuntzaren historia arloko liburuak 20, zazpi elkarlanean egindakoak; artikulua 22 eta liburu-atalak 29 izan dira, bi baino ez elkarlanean. Zenbaketa hau egiteko Iztuetaren ibilbidea ospatzeko lankideek egindako lanetik Ibai Iztuetak idatzitako «Paulo Iztuetaren bibliografia hautatua» idazlana eta Inguma datu-basea erabili dira (Iztueta, I., 2007).

Doktore-tesien zuzendaritzari dagokionez, guztira 8 izan dira, denak euskaraz. Kronologikoki Josu Amezagarena izan zen lehenengoa 1994. urtean, *Herria eta kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*, EHUKo Informazio eta Gizarte Zientzietako Fakultatean; Maria Jesus Iñarrak 1994. urtean *Hilketa eta masa hezkuntza. Juan Díaz de Garaio. Gasteizko Sacamantecas (1821-1881)*, EHUKo Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, eta Pello Jauregiren *Berezko taldeak euskalduntzeko estrategia. Gazte talde baten kasua*, EHUKo Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; Bilboko Irakasle Eskolan 2002an Begoña Bilbaoren *Kultura erreferenteak Oinarritzko Hezkuntzako curriculumean. Euskal Herriko eskoletan*; 2003an Karmele Perez Urrazaren *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*; 2006an Kepa Perez Urrazaren *Ingurune hurbileko curriculum soziohistorikoa. Zeberio harana (1567-1967)*; 2004an Gurutze Ezkurdiaren *Identitatea eta ingurunea curriculumean*, EHUKo Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; azkenik, 2012. urtean Jon Diaz Egurbideren *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumean. Eginak eta asmoak*, hau ere EHUKo Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

5. Ondorioak

Artikulu honek Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasleen argitalpenen analisi kuantitatiboa egitea izan du xede. Eta hezkuntzaren historia arloan euskaraz nork, non eta noiz zer argitaratu duen argitzen du. Emaitzak erakusten du liburuen % 72 Udako Euskal Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta *Utriusque Vasconiae* argitaletxeen artean egin dela; eta artikuluen produkzioaren % 52, berriz, *Tantak* eta *Uztaro* aldizkarietan.

Lehen analisi honek bi interpretazio egitera eramán gaitu. Lehen, dokumentu kopuruari begira, eta bigarrena, irakasleen akreditazio-neurriei begira egiten dena. Datuek erakusten dute euskarazko argitalpenen hazkundea 1990eko eta 2000ko hamarkadetan gertatu zela, baina 2010eko hamarkadatik aurrera beherakada bat nabaritzen da. Bilakaera honek agerian uzten du azken hamarkadan euskaraz egin den produkzio akademikoa hazkunde negatiboan dagoela.

Gainera, euskarazko ekarpenak oso zabalkunde mugatua duela ikusten da. Izan ere, euskal akademiaren argitalpen zientifikoak saritzeko eta aitortzeko dauden mekanismoak nazioarteko parametroetan oinarritzen direnez, euskarazko lan akademikoa argitaratzeko pizgarriak murriztu egiten dira. Horrek adierazten du oraindik ez dela epistemologia propio bat garatu euskal pentsamendutik abiatuta,

eta akademia nagusiki nazioarteko komunitate zientifikoaren paradigmatetik baldintzatzen dela. Unibertsitate-sistemaren egiturak eragin handia du argitalpen akademikoen hizkuntzan. Hezkuntzaren historian egindako gehienak erdarazko aldizkari eta argitaletxeetan egiten dira, ustezko prestigio akademikoa lortzeko beharra azpimarratzen delako.

Azterketa honek erakusten du euskararen auziak eta unibertsitateko irakasleek eta ikertzaileek bizi duten egitura estruktura eta botere politikoaren ondorioa dela. Batetik, ikerketa-hizkuntzari dagokionez, ingelesa eta espainola nagusitzen direlako. Eta bestetik, unibertsitateko irakasleen akreditazioaren lehian, lanpostu finkoa, seiurtekoak eta beste ikerketa-merituak lortzeko garaian, ez delako egindako lanen kalitatearen gainean egiten, publikatutako aldizkariaren ranking-aren balorazioan baizik. Unibertsitateko irakasleen saritze-prozesuan, lan akademikoen kopuruak eta argitaratzen den aldizkariaren rankingak bermatzen dute argitalpenen uza. Gaur egun aldizkari ezagunen kalitate- edo inpaktu-eraginarekin lotuta dago eta estatu-hizkuntzak balioesten ditu; euskara, aldiz, bigarren maila batean kokatua dago, lokala den komunikazio-esparru batean. Ez du argitalpen akademikoaren kalitatearekin zerikusirik, hizkuntzaren arauarekin baino ez. Ebaluazio-prozesu honek euskarazko publikazioak bigarren mailan kokatzen ditu. Eta horrek zuzenean ikerketaren saritze-prozesuan eta publikazio kopuruan eragiten du.

Amaitzeko, euskarazko ekoizpen akademikoaren erronkak eta gabeziak identifikatzearekin batera, beharrezkoa da euskarazko jakintza-sorkuntzaren etorkizuna sendotzeko estrategiak eta baliabideak garatzea. Gizarte-zientzietan euskaraz argitaratzeko aukerak ez dira ugariak eta euskal akademiara zuzendutako argitaletxeak desagertzen badira, aukerak murriztu egiten dira. Utriusque Vasconiae argitaletxearen amaieraren ostean, UEUn eta unibertsitate publikoan egituratu diren egitasmoak nagusitzen dira. Etorkizunera begira orain arte egin dena mantentzea beharrezko erronka da. Era berean, euskarazko produkzio akademikoak areagotzeko eta euskal komunitate zientifikoa sendotzeko neurriak hartzeko urratsak eman behar dira, hala nola unibertsitate-mailan euskarazko ekoizpen akademikoaren sustapena eta aitortza indartzea, eta euskarazko argitalpenak sustatzeko egitura sendoagoak sortzea.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Agirreazkuenaga, J. (d.g.). Euskal Herriko historiari buruzko historiografia. *Auñamendi Entziklopedia* [online]. Eusko Ikaskuntza. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/euskal-herriko-historiari-buruzko-historiografia/ar-154217/> [Kontsulta-data: 2023-06-03]
- Aizpuru, M. (2005). Historia euskaraz XX. mendean, nahiaren eta ezinaren artean. Lehen hurbiltzea. *Vasconia*, 34, 423-451.
- Amezaga, J. (1994): *Herria eta kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*. Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU.
- Arnau Sabates, L., eta Sala Roca, J. (2020). *La revisión de la literatura científica. Pautas, procedimientos y criterios de calidad*. Guías y recursos para investigar en educación. Universitat Autònoma de Barcelona. <https://ddd.uab.cat/record/222109>
- Arteaga, G. (2004). *Identitatea eta ingurunea curriculumean*. Utriusque Vasconiae.

- Artetxe, K. (2010). *Komunitate zientifiko euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa* [Doktoretza-tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Askoren Artean (1989). Euskal historiografia. *Jakin*, 55, 7-129.
- Bilbao, B. (2002). *Kultura erreferenteak Oinarrizko Hezkuntzako curriculumean*. Utriusque Vasconiae.
- Camino, I. (2010). *Los estudios de segunda enseñanza en Guipúzcoa. El Instituto Provincial (1845-1901)*. Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU.
- Campos, T., eta Juaristi, P. (2010). Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua: aurrera-pausoak eta erronkak. *Jakin*, 168, 11-22.
- Dávila, P. (1987). *Educación en el País Vasco: el magisterio y la enseñanza elemental (1857-1930)*. Universidad de Barcelona.
- Dávila, P., eta García, I. (2008). Hitzaurrea, Hezkuntzaren historia Euskal Herrian. *Euskonews*, 465, 2008/XII/12-19. <https://www.euskonews.eus/0465zbn/gaia46501eu.html>
